

## Festak

**F**estazalea nintzen ni, baina onartu behar dut urte batzuetatik hona, eta duela gutxi hemen onartu bezala, gero eta Javier Marias-agoa naizela horrelako-ei dagokionez. Horregatik poztu naiz Gai Harrotasunaren bertsio madrildarra Hernanin pasa dudalako; zerkusirik izan dezake, ia ezkondurik, bikotean bizi garenok lige merkatutik kanpo geratzen den eremu asperrigari xamar horretan bizi-tzearekin; gainerakoan jendetzaren beharrezko konplize bihurtuko litzaideke —irudika dezaket, esfortzu handirik gabe, neure burua zarrak bezala jendeari ipurdia



**Jira**  
Uxue Apaolaza

usnatuz, gero eta gehiago, ai ene, adina asmatu nahian—. Sanferminetan ere jendetzara sartzeko arloan, ligatu nahi dutenekiko soilik naiz ulerkorra.

Gero eta gehiago dut sentsazio medioetatik bultzakera eraman nahi nautela zenbait festatara; beste batzuk isilean debekatu diren eran —Madrilen Malasañako festekin gertatzen den eran— edo botila festak eta kriminalizatzen diren bitartean, albertan ibiltzeko eremua eta ordua ere jarri nahi balidate bezala, izerdiz kanporatutakoak berreskuratuko zerbezaren etekinak etxe azpiko txinonez ordez beste inork eraman ditzan, aipaturiko biki festak gero eta gehiago baitira zenbait enpresaren deialdi. Krudela da gure hormonekiko menpekotasunaz horrela baliatzea...

## Arberatzte

**D**onapaleu kantonamenduko Arberatzte, Baionan lan egiten duten frankoren lotaria zela bagenekien, baina krisi garaian gauden arren, lekuan lekuko garapenaren eredu bihurtzen zaigula ezin uka. Alabaina iragan ekainaren 18an, *Le Miroir de la Soule* hamabostekariak azaltzen duenez, bertan estrenatu zen MFA lantegia. Euskal Herri hegoaldean dauzka erroak enpresa horrek eta hamalau hila beren buruan hasi da trenbideentzat burdinezko bihotz ekoizten, berrogeita hiru langilerek.

Ez dakit nork zioen, beharbada Alphonse Allais

umoristak, gertakari handia zitekeela ūzinak baserri guneeetan eraikiko zirenean. Hara Arberatzeko herriak, Lur Berri konplexuaren parean hain zuzen, utopiazale zenbaiten ametsa betetzeko duela. Xingolaren ebakitzeko lehiatu ziren politikariak, eskualdekoak eta departamendukoak, MFAko ordezkariak, Baionako suprefeta eta CCILko lehendakaria, mirakulua denek gozesten zutela.

Handiki bataiatu zuten alabaina. Agian ez du kanpotik etortritako fabrika askoren gisa —Sony, Ruwel eta abar luzea...— diru-laguntza publikoaren bezain zerga-erraztasunez bataiatu eta epe laburrean hortik aldeginen.

Amikuzek darraileko ekonomia mailako laborategi izaten, lehen bezala orain ere.



**Bira**  
Itxaro Borda

**Zuzendaria:**  
Martxelo Otamendi  
**Zuzendariordea:**  
Xabier Makazaga  
**Edizio arduraduna:**  
Lurdes Huizi  
**Argitaratzailea:**  
Euskal Editorea SM  
**Publizitatea:** Iragarri SM  
**Lege gordailua:**  
SS-0662/03  
**Batzorde parakidea:**  
0712184059

**Goiztza nagusia:**  
Martin Ugalde kultur parkea.  
Gudarien Etorbidia, z/g.  
20140 Andoain.  
**Telefonoa:**  
(0034) 943-30 40 30  
**Faxa:** (0034) 943-30 09 43  
**Webgunea:**  
www.berria.info  
**Posta elektronikoa:**  
berria@berria.info  
**Publizitatea:**  
publi@iragarri.net  
**Harpidetza saila:**  
(0034) 943-30 43 45

**Date:** 08/07/2009  
**Exempleire:** 1.878  
**Editeur:** Euskal Editorea s.l.  
**Directeur de publication:**  
Martxelo Otamendi  
**Commission paritaire:**  
0712184059  
**Delegation Labour:**  
Lisses 3, 64100-Baiona.  
Tel.: (0033) 559256220.  
Fax: (0033) 559254303.  
E-mail: lapurdi@berria.info

**ORDEZKARITZAK**  
**Araba:** Bizenta Mogel, 6.  
Posta kodea: 01008  
Gasteiz. Telefonoa:  
945-15 04 52. Erredakzioko  
faxa: 945-14 83 07.  
Posta elektronikoa:  
araba@berria.info.  
**Bizkaia:** Uribitarte kalea, 18,  
3. C. Posta kodea: 48001  
Bilbo. Telefonoa:  
94-435 26 00. Erredakzioko  
faxa: 94-423 49 75.  
Posta elektronikoa:  
bizkaia@berria.info.  
**Lapurdi:** Lisses, 3, Posta  
kodea: 64100 Baiona.  
Telefonoa: 559-25 62 20.  
Faxa: 559-25 43 03.  
Posta elektronikoa:  
lapurdi@berria.info.  
**Nafarroa:** Iratzeko Monasterio,  
45, 13. Posta kodea:  
31011 Iruñea. Telefonoa:  
948-36 66 22.  
Publizitatea: 948-36 66 23.  
Posta elektronikoa:  
nafarroa@berria.info.

# Uztailak 8: etengabeko lopsagabekeria

**Josu Txueka**  
**Piru Zabalza**  
**Presen Zubillaga**

'Sanfermines-78: Gogoan' ekimeneko kideak

**D**uela 31 urte geroztik, 1978ko sanferminetan eragindako ankerkeria dela kausa, Egia, Justizia eta Ordaina eskatzen ari garenontzat, Joan den urte oso garrantzizkoa izan zen, lortu bainenuen Barcina alkateak Germanen hilarrira biltoki ilun batean lurpera ez zezan eta erdietsi bainenuen hilarrira bere tokian berritoki paratzea.

Ehunka pertsonak bat egin zuten esfortzu horrekin: artista askok utzi zituzten bere artelanak erakusketa bat egiteko; hamaika idazlek bere oroitza eta amorrazioa islatu zituzten bere postaletan; zuzenbide arloko laurogei profesional baino gehiagok erailketa harekiko justiziarik eza salatu zuten; haren guztiaren gainean bideo bat egin zen; hainbat txaranga, fanfarrek, txistularik, abesbatzak eta kantarik beren ahotsa eta musika ekarri zituzten. Talde sozial askok eta milaka lagunek hartu zuten parte deitu ziren kontzentrazio, manifestazio eta ekitaldietan.

Ikasturte honetan lanean jarraitu dugu. Erakundeek (Udala, Parlamentua, Gobernua...) erakutsita, pasobotasun konplizea ikusita, urte hasieran, Arartekoari eskuhartze eskatu genion, baina emandako erantzuna ezin etsigarriagoa izan zen. Epe arazoak eta

eskumenik eza argudiatuz, Arartekoak ardura sailhestu zuen. 50 talde baino gehiagok, zuzenbide arloko laurogei profesionalak eta sanfermin haietan balaz zauritutako batzuek sinatu zuten eskaera, baina egia, justizia eta ordaina lortzeko eskakizuna gutxietsia izan zen.

Ekainean, 45 nafar historialaririk (irakasleak, ikertzaileak...) adierazpen bat idazteko dute. Bertan «jazotako gertaerak, gure herriak azken hamarkadetan pairatu dituen eraso larriekin lotutako, zigorririk gabeko gertakariak, gainera» jotzen dute eta baieztatzen dute «haren gaineko erantzukizun zuzena Espainiako Poliziari eta, funtsean, orduko UCDren gobernuari dagokiena». Gure erakundeek eskatzen diete «eraso hura aitor dezaten, gure herriaren historiaz egin beharreko edozein jardun ofizialetan sartzeari onorioetarako» eta «oroimen historiko hurbilari lotuta dauden gai horiek sar daitezen hezkuntza curriculumetan».

Ildo horretan, hilabete honetan Iruñeko osoko bilkuran mozio bat aurkeztu dugu «Egiaren Batzorde» bat sor dadin, eraso hura ofizialki aitortzeko eta egiaren, justizia eta ordainaren alde lan egiteko. Batzordean penek eta talde sozialek ere parte hartuko lukete. Zorixarrez, mozioa ez dute onetsi. UPNk, beti bezala, haren kontra jardu. PSNk, bestealde, hilarrira bere tokian jarri ondoren, ez du beharrezko jotzen zerbait gehiago egitea, gai honi dagokionez. Arrazoia simplea da: 1978ko sanferminei buruzko egiak biziki sumintzen dituen pertsona ezin, bertan sakontzeak Nafarroako trantsizio politikoaren

testuinguruan sakontzea baitakar, eta hori ez zaie, inola ere, interesatzen.

Eusko Legebiltzarrean, 1976ko martxoaren 3an UCDren gobernuko poliziak eragindako langileen triskantzar aurkeztutako ebazpen bati, gurearen antzekoari, PSEk baiezeko botoa eman dio; zergatik Nafarroan ez? Zergatik agertzen da antzeko neurriak hartzearen aurka, modu gogorrean gainera? Malagako Aldundian eta Andaluziako Parlamentuan, poliziak 1977an hil zuen Manuel Garcia Carreros bertako seme kuttun izendatu zuten eta erailketa hura salatu. PSOEK baiezeko botoa eman zuen han. Zergatik Iruñean ez? Zergatik egiten dio uko antzeko adierazpen bati?

Trantsizioak Nafarroan bi ezauzgarri izan zituen, Estatuko beste inon izan ez zirenak. Lehenik,

Foru Hobekuntzaren Oinarriak ez ziren Parlamentuan onetsi, ez ziren negoziatio demokratiko baten emaitza izan. Bi frankistak finkatu zituzten: Amadeo Marock, Diputazioko azken jauntxoak, eta Martin Villak, Francoren Mugimenduko goiko kargudun eta orduan barne ministroak. Bigarrenik, Nafarroa erkidego bakarra izan zen non ez baitzen egin erreferendumik Autonomia Estatutua (Foru Hobekuntza) onesteko.

Hainbat aldiz esan da. 1978ko sanferminak estatuko botere faktikoek emandako kolpe bat izan zirela ohartarazteko, gerta zitekeen abisua emateko, Nafarroako instituzionalizazioa bide («zuzenetik») ez bazen bideratzen. Kontrolatu gabeko polizeiek eta jasotako aginduetan gaizki ulertzeren batez hitz egiten zuten bertsio ofizialetatik askoz haratago zihono.

Ez da harritzekoa orain, UPNk zein PSNk eraso hura ofizialki aitortzeari uko egin izana. Baina ez dugu amore eman behar. Gaur egun memoria historikoa berreskuratze bizi dugun mugimendu indartsua pentsa zena zen duela hamarren bat urte. Eta lortutakoa ere, lau haizetara zabaldu gabe. Horregatik ez dugu etsiko. Talde sozial, zuzenbide arloko profesional, historialari, artista, idazle horiek guzkiekin Egia, Justizia eta Ordaian eskatzen jarraituko dugu. Aurten lortzen ez duguna, hurrengorako geldituko zaigu egi-teko. Eta, bitartean, gaur bertan, uztailaren 8an, hitzordu bat dugu, 13:00etan, Germanen hilarraren ondoan, eta beste bat, arratsaldean, zezenketatik ateratzera. Eutsi goiar!

1978ko sanferminei buruzko egiak biziki sumintzen dituen pertsona asko, bertan sakontzeak Nafarroako trantsizio politikoaren testuinguruan sakontzea baitakar, eta hori ez zaie, inola ere, interesatzen